Laudio Llodio

EUSKARA ARLOA
Tlf.: 94 403 4890 / Fax.: 94 403 4753

ÁREA DE EUSKERA
euskara@laudio.eus

Herriko Plaza
01400 Laudio / Llodio (Araba / Álava)
www.laudio.eus

**LAUDIO UDALA**

Laudioko merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzu-enpresetan euskarazko errotuluak sustatzeko diru-laguntzetarako deialdia eta oinarri arautzaileak. 2016. urtea.

Udal honetako Tokiko Gobernu Batzarrean 2016ko ekainaren 17 egunean izandako ohiko batzarrean, Laudioko merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzu-enpresetan euskarazko errotuluak sustatzeko diru-laguntzetarako deialdia eta oinarri arautzaileak onartu ziren.

Hartutako erabakiaren laugarren atalean jasotakoari jarraiki eta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 52.1. artikuluan xedatutakoa betez argitara ematen dira, objetibotasun, lehia eta publizitatearen printzipioak bermatu daitezen.

Laudio, 2016ko ekainaren 17an.- Alkate-udalburua, Jon Iñaki Urkixo Orueta.

**AYUNTAMIENTO DE LLODIO**

Convocatoria y bases reguladoras de subvenciones para promoción de la rotulación en euskera en comercio, hostelería y pequeñas empresas de servicios de Llodio. Año 2016.

En sesión ordinaria de Junta de Gobierno Local de este Ayuntamiento de Llodio celebrada el 17 de junio de 2016 se aprobó la convocatoria de una serie de ayudas destinadas a fomentar de la rotulación en euskera en comercio, hostelería y pequeñas empresas de servicios de Llodio, así como las bases que regulan su concesión.

En cumplimiento del cuarto de los acuerdos adoptados y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 52.1 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre, se procede a su publicación para garantía de los principios de objetividad, concurrencia y publicidad.

Llodio, 17 de junio de 2016.- El alcalde-presidente, Jon Iñaki Urkixo Orueta.

| | |
|---|---|
| **LAUDIOKO MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA ZERBITZU ENPRESETARAKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA, EUSKARAZKO** | **CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES, A COMERCIO, HOSTELERÍA Y EMPRESAS DE SERVICIOS POR NUEVOS TRABAJOS DE** |

**ERROTULAZIO-LAN BERRIAK EGITEKO. 2016. URTEA.**

**OINARRIAK**

LEHENENGOA. Xedea.
Oinarri hauen xedea honakoa da: Laudio Udalak, bere Euskara Arloaren bitartez, udalerrian dauden merkatari, ostalari eta zerbitzu enpresa txikiei, deialdi honen eraginpeko epean burutuko dituzten euren errotulazio-gai berrietan, euskaraz egiteagatik, esleituko zaizkien diru-laguntzak arautzea.

Laguntza horiek norgehiagokako erregimenean emango dira.

Diru-laguntza hauen bitartez, euskararen presentzia areagotu nahi da, izatez, arlo honetan egiten den ia guztia beste hizkuntzetan egiten delako, gaztelaniaz batik bat. Honela, ofizialki onartua dagoen hizkuntza biko egoerara hurbildu nahi da.

Bide batez eta batez ere, ekimen honen helburu soziolinguistikoa hizkuntza paisaian eragitea da, aldi beran, herritarren euskararekiko motibazio eta erabilera esparruetan jarduteko.

BIGARRENA. Onuradunak.
Diru-laguntza honen onuradunak izan daitezke Laudio udalerrian egoitza edo ordezkaritza duten merkatari, ostalari eta zerbitzu enpresa txikiak betiere merkatari, ostalari eta zerbitzu enpresa txikientzako udalaren euskara planean partaide badira.

Eskaera pertsona fisikoek (gizabanakoak) zein juridikoek (merkataritza-sozietateak, enpresak...) egin dezakete.

**ROTULACIÓN EN EUSKERA. AÑO 2016.**

**BASES**

PRIMERA. Objeto.
El objeto de las presentes bases es el de regular la concesión de subvenciones por el Ayuntamiento de Llodio y a través de su Área de Euskara, a establecimientos mercantiles, hosteleros y pequeñas empresas de servicios ubicadas en Llodio por la inserción del euskara en los nuevos trabajos de rotulación realizados en el período abarcado por esta convocatoria.

Las ayudas se concederán en régimen de concurrencia competitiva.

Con dicha ayuda pretende reforzarse la aparición del euskera en un campo casi en su totalidad monopolizado por otras lenguas, especialmente el castellano, y así intentar acercar la realidad a una situación de bilingüismo oficialmente reconocida.

A su vez y en especial, el objetivo sociolingüístico de la presente actuación es el de incidir en el paisaje lingüístico, para actuar en los ámbitos de la motivación y uso del euskara.

SEGUNDA. Beneficiarios.
Podrán optar a estas ayudas todos aquellos establecimientos mercantiles, hosteleros y pequeñas empresas de servicios que tengan su sede o delegación en el municipio de Llodio y que estén tomando parte en el plan municipal de euskera para comercio, hostelería y pequeñas empresas de servicios.

La solicitud la podrán hacer tanto personas físicas (individuos) como jurídicas (sociedades mercantiles, empresas...).

| | |
|---|---|
| Herriko erakunde ofizialek (herri-administrazioek, osasun zentroek, ikastetxeek...) ezin izango dute Diru-laguntza hauen onuradunak izan. | No podrán ser beneficiarias de esta convocatoria las entidades oficiales (administraciones públicas, sanidad, centros de enseñanza, etc.). |
| Kasuren batean eskatzailea Diru-laguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. atalean edo Laudio udaleko Diru-laguntzen udal Ordenantza Arautzailean laguntza horiek ezintasunerako zehazten diren egoeraren batean balego ezin izango luke deialdi honen onuradun izan. | No podrán obtener la condición de beneficiario aquellas personas o entidades en las que concurra alguna de las circunstancias contempladas en el art. 13 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, Ley General de Subvenciones o en la Ordenanza Municipal Reguladora de Subvenciones del Ayuntamiento de Llodio. |
| HIRUGARRENA. Lagunduko diren errotulazioak. | TERCERA. Rotulaciones que serán subvencionadas. |
| Diru-laguntza hauek emango dira baldin eta soilik errotulatuko den testua, euskaraz agertzen bada (euskaraz baino ez edo bestelako hizkuntza batzuekin batera) eta testua erakusteko euskarria establezimendua identifikatzeko kanpoko errotulu nagusia edo toldoa edo ibilgailu bat bada. Identifikazio errotuluetan, ez dira lagunduko bigarren mailako kartelak, errotulu nagusiak baizik. | Se concederán las ayudas siempre que el texto a rotular aparezca en euskara (sólo en euskera o junto a otras lenguas) y que el soporte en donde se exponga se trate del rótulo exterior principal identificativo del establecimiento o un toldo o vehículo. En los rótulos identificativos no se subvencionarán los carteles secundarios sino los rótulos principales. |
| Deialdi honen bitartez lagunduko diren errotuluak izango dira lanaren faktura-data 2015eko urriaren 31tik 2016ko urriaren 28ra bitartean dutenak, biak barne. | Serán rótulos subvencionables por medio de esta convocatoria, aquellos cuya fecha de facturación esté comprendida entre el 31 de octubre de 2015 y el 28 de octubre de 2016, ambos incluidos. |
| LAUGARRENA. Laguntza deialdiaren zenbatekoa. | CUARTA. Cuantía de las convocatoria subvenciones. |
| Diru-laguntza guztien batuketak, gehienez ere, 2.000,00 eurokoa izango da, hau baita deialdi honetarako aurreikusitakoa. | El cómputo total de todas las subvenciones concedidas no podrá superar la cantidad de 2.000,00 euros prevista. |
| Hala ere, deialdian aurreikusitako diru kopurua nahikoa izango ez balitz, Tokiko Gobernu Batzarrari legokioke erabaki egokiak hartzeko eskumena, handitzearena barne. | Sin embargo, si la cantidad máxima prevista no fuese suficiente, corresponderá a la Junta de Gobierno Local la adopción de las medidas que estime oportunas, incluyendo la de su ampliación. |

| Euskara | Castellano |
| --- | --- |
| Deialdi honen gastua Laudio Udalaren 2016. urteko Aurrekontuaren 0900-3351-48112 ("Bestelako diru-laguntzak") diru sailaren karguan egingo da. | El gasto se imputará con cargo a la partida 0900-3351-48112 ("Otras subvenciones") del Presupuesto del Ayuntamiento de Llodio de 2016. |
| Eskaera guztiei aurre egiteko diru nahikorik balego, onartutako laguntzak beren osotasunean ordainduko lirateke. Baina nahikorik ez balego laguntza horiek guztiak proportzionalki txikitu ahal izango lirateke aurrekontu baliagarrira egokitu arte. | De haber consignación presupuestaria para hacer frente a todas las solicitudes se abonará la subvención en su totalidad. Si no la hubiera, todas las ayudas a conceder podrían verse reducidas porcentualmente hasta ajustarlas al presupuesto disponible. |
| BOSGARRENA. – Erabakitzeko balorazio-irizpideak eta balioespenak. | QUINTA – Criterios de valoración para resoluciones y ponderaciones. |
| Diru-laguntza hauen ezaugarriak direla medio, ez dago laguntza hauek balioesteko irizpideak ezartzerik. | Dado el carácter de las presentes ayudas, no ha lugar el establecer criterios para la valoración de las ayudas. |
| Hala ere, aintzat hartu beharko dira ondoko puntu hauek, laguntza bideratuko dutelako: | Sin embargo habrán de tenerse presentes los puntos por los que se regirá la subvención: |
| a) Diru-laguntzak emango dira ondoren adierazten diren euskarrietan agertzen diren hizkuntza txertapenetarako: | a) Se concederán subvenciones a aquellas inserciones lingüísticas cuyo soporte material sea el de: |
| - establezimendua identifikatzeko kanpoko errotulu orokor nagusia, betiere jardueraz edo eta onuradunaren berezko zereginez informazioa ematekoa baldin bada. Errotulu nagusia bat bakarra da. | - el rótulo general exterior principal, identificativo del establecimiento y en el que se informe sobre la actividad o características intrínsecas al quehacer del beneficiario. El rótulo principal sólo es uno. |
| - toldo-errotulazioa, onuradunaren jardueraz edo erakunde berari buruzko informazioa ematen duen kasuetan soilik. Ez dira lagunduko bertan ager litezkeen gainerako publizitate-osagarriak. | - rotulación de toldos con información exclusiva sobre la actividad de la entidad beneficiaria o información específica de la misma. No amparará otros elementos publicitarios ajenos a la entidad. |
| - ibilgailu industrialen errotulazioa, onuradunaren jardueraz edo erakunde berari buruzko informazioa ematen duen kasuetan soilik. Ez dira lagunduko bertan ager litezkeen gainerako publizitate-osagarriak. | - rotulación de vehículos industriales, con información exclusiva sobre la actividad de la entidad beneficiaria o información específica de la misma. No amparará otros elementos publicitarios ajenos a la entidad. |

b) Aurreko eskakizunak betetzen baldin badira eta errotulua euskaraz baino ez badago, kostuaren zerga-oinarriaren ehuneko 70 lagunduko da, eta oinarri berori izango da gastu lagungarria.

Euskaraz gain beste hizkuntza batez balego errotulua, kostuaren zerga-oinarriaren ehuneko 35 lagunduko da, eta oinarri berori izango da gastu lagungarria.

Nolanahikoak izanda, onartutako diru-laguntzari dagokion kopurua 350 eurokoa izango da gehienez ere.

Euskara ez den bete hizkuntza bat dagoen kasuetan, euskarak berdintasun edo lehentasuneko tratua izango du beste hizkuntzarekiko diru-laguntzaren onuradun izan ahal izateko. Horretarako, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. Irakurketaren ibilbideari jarraiki, euskara erdara baino lehentsuago agertuko da. Hau da, testua goitik beherako taxutzea duenean, euskarazko testua goiko aldean egongo da eta, horizontala denean, erdarazkoaren ezkerraldean.

2 Erabiliko diren grafien edota testuen tamainan ezberdintasunik balego, euskarazko bertsioa izango da tamaina handienekoa.

3. Badira kontuan hartu behar diren hierarkia tipografiko batzuk: ondoren adierazten dira, garrantziaren araberako hurrenkeraz. Edozein kasutan ere, ezberdintasunik balego, euskarazko testuak erdarazkoak baino eskala altuagoa hartuko du errotulazio lanetan:

- LETRA LARRIA > Letra xehea
- Azpimarratua > Ez-azpimarratua
- Letra beltza > Arrunta

b) Si se cumplen los requisitos anteriores y el rótulo está exclusivamente en euskera se subvencionará hasta el 70 por ciento de la base imponible del coste del soporte rotulado, siendo dicha base el gasto subvencionable.

Si además de en euskera el rótulo estuviese en otras lenguas, se subvencionará el 35 por ciento de la base imponible del coste del soporte rotulado, siendo dicha base el gasto subvencionable.

En cualquier caso, la cantidad de la subvención aprobada será de una cuantía máxima de 350 euros.

Si en el rótulo apareciesen algunas otras lenguas además del euskera, ésta habrá de contar con un trato de igualdad o preferencial frente a aquellas para poder acceder a la subvención. Para ello, habrá que tener presentes los siguientes criterios:

1. Siguiendo el orden de lectura, el euskara aparecerá en una ubicación anterior al de otras lenguas. Es decir, cuando la disposición sea de verticalidad, el euskara se encontrará encima de las otras lenguas y, de ser horizontal, el euskara a la izquierda.

2. De existir una variación en los tamaños de las grafías usadas o en la de los textos, la de mayor tamaño será la de la versión en euskera.

3. Siempre que sea necesario serán aplicadas las jerarquías tipográficas que, siguiendo un orden de mayor a menor importancia, se detallan a continuación. En cualquiera de los casos, el texto en euskara ocupará un rango de esta escala superior al de otras lenguas:

- MAYÚSCULAS > minúsculas.
- Subrayado > No-subrayado.
- Negrita > Normal.

| | |
|---|---|
| - Arrunta > Etzana | - Normal > Cursiva. |
| (balio gehiago > balio gutxiago) | (valor mayor > valor menor) |
| 4. Sarri, elementu batzuk ager daitezke, ezer berezirik ekarri gabe, hizkuntza bat baztertzen dutenak eta, beraz, saihestu behar direnak. Gainera, nazioarteko administrazio-hizkuntzaren gomendio orokorrekin bat dator. Hauetako bat, helbideak idaztekoa da: Egokiagoa da “Goikogane, 25” helbidea idaztea “K/ Goikogane, 25 zk” edo “Goikogane kalea, 25 zk” baino. | 4. Serán evitados todos aquellos elementos que, siendo prescindibles, pudieran discriminar a una de las lenguas como, por ejemplo, en el uso de las direcciones se dará preferencia a fórmulas del tipo “Goikogane, 25” frente a “C/ Goikogane, nº 35”, ateniéndose así a las recomendaciones generales e internacionales de lenguaje administrativo. |
| 5. Hizkuntza bakoitzeko testuak bereizirik agertu behar izatekotan euskarazko testuak erdarazkoak duen helgarritasun bera edo gehiago izango du. | 5. Cuando las dos versiones lingüísticas vayan por separado la versión en euskara tendrá una accesibilidad visual mayor o igual a la de otras lenguas. |
| c) Oinarri honetako a) eta b) atalak errotulazio-lan bakoitzari aplikatuko zaio, hau da, errotulu nagusi, toldo edo ibilgailu bat baino gehiago behar izanez gero, diru-laguntzak biderkatuko lirateke. | c) Los apartados a) y b) de esta base serán aplicables a cada elemento de rotulación independientemente, es decir, que de necesitarse más de un rótulo principal, toldo o vehículo, las ayudas serían multiplicadas. |
| d) Ezin izango dute diru-laguntzarik jaso establezimenduaren izen berezi soila edo abizena edo izen-abizenetan edo toponimo bat edo antzekoetan soilik oinarritutako errotulazioa bada. Bestela esanda, izenaren osagarri generikoa (harategia, okindegia, jatetxea...) da laguntza deialdi honen bitartez lehenetsi nahi dena. | d) No se subvencionarán aquellos rótulos basados exclusivamente en el nombre propio del establecimiento, en el apellido o en los nombres y apellidos, en un topónimo o similar. Es decir, por medio de la presente convocatoria se pretende promocionar el uso de los componentes genéricos (harategia, okindegia, jatetxea...) de la denominación. |
| e) Ez dira diruz lagunduko txarto idatzita edo oker gramatikalak dituzten lanak. Horretarako, eskatzaileak beti izango du baliagarri lana egin baino lehenagoko Euskara Arloaren aholkularitza. | e) Quedarán excluidos los trabajos incorrectamente escritos o con errores gramaticales. Para ello se contará con el asesoramiento del Área de Euskera, previo a la realización del trabajo. |
| SEIGARRENA. – Eskaera eta agiriak. | SEXTA.- Solicitudes y documentación. |
| Eskaerak egiteko, ohiko eskabideak erabiliko dira. Hauek bai Udaletxean dagoen Herritarrarentzako | Las solicitudes se presentarán en instancia normalizada. Éstas podrán conseguirse en el |

Laudio Llodio

EUSKARA ARLOA
Tlf.: 94 403 4890 / Fax.: 94 403 4753

ÁREA DE EUSKERA
euskara@laudio.eus

Herriko Plaza
01400 Laudio / Llodio (Araba / Álava)
www.laudio.eus

Arreta Zerbitzuan (HAZ) bai Laudioko Udalaren webgunearen bidez (www.laudio.eus) eskura daitezke.

Eskaerarekin batera, honako agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Errotulatuko den lanaren diseinu-froga, errotulatzeko testua eta aurrekontu zehatza. Eginda balego, lanaren jatorrizko faktura-kopia bat.

Hala ere, errotulazio hori egiteko beste nonbait laguntza eskatu bada eta jatorrizko faktura eskuragarri edukiko ez badu eskatzaileak, jatorrizkoaren fotokopia konpultsatua onartuko.

Nola edo hala, fakturarekin batera ordainduta izanaren egiaztagiria ekarriko da.

b) Eskaera izenpetzen duena pertsona fisiko bat denean, NANaren kopia eta, juridikoa balitz, IFK txartelaren kopia, bere izenean jarduten duen pertsona fisikoaren NANaren kopia eta dokumentazio egokia egiaztatzeko pertsona fisiko hori pertsona juridikoaren legezko edo baimendutako ordezkaria dela.

c) Eskatzailearen izenpeko kontu-korronte zenbaki bat, Diru-laguntzaren ordainketa bideratu ahal izateko.

d) Eskatzailea Udal eta Foru Ogasunekin eta baita Gizarte Segurantzarekin zerga-betebeharren ordainketan egunean dagoela egiaztatzen duen agiria. Informazio hori lortzeko eginbideak Euskara Arloaren esku utz daitezke, eskabidean horretarako dagoen atalean horretarako baimena espresuki ematen bada.

Eskaerak Laudioko Udaletxeko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (Herriko Plaza, z/g 01400 LAUDIO) aurkeztuko dira edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta

Servicio de Atención al Ciudadano (SAC) sito en la Casa Consistorial o a través de la web municipal (www.laudio.eus).

Junto con la solicitud se aportará la siguiente documentación:

a) Prueba del diseño, texto a rotular y presupuesto detallado del trabajo de rotulación. Si se encontrase ya realizada, copia original de la factura.

En el caso de que por haberse solicitado alguna otra subvención en otro estamento el solicitante no dispusiese la factura original, se aceptará la fotocopia compulsada de la misma.

En cualquier modo, acompañará a la factura el justificante del pago de la misma.

b) Si la solicitud la tramita una persona física, copia del DNI del firmante de la solicitud; si fuera una persona jurídica, copia de la tarjeta del CIF, copia del DNI de la persona física que lo representa y acreditación de que esa persona física es la representante legal o autorizada de la persona jurídica.

c) Número de cuenta bancaria a nombre del solicitante para tramitar el pago de la subvención.

d) Certificado de hallarse al corriente de pago de las obligaciones tributarias con el Ayuntamiento y con la Hacienda Foral, además de frente a la Seguridad Social. La solicitud de dicha información podrá delegarse en el Área de Euskera una vez autorizada expresamente dicha gestión en la opción del impreso de solicitud.

Las solicitudes serán presentadas en el Servicio de Atención al Ciudadano del Ayuntamiento (Herriko Plaza, s/n 01400 LLODIO) o en las formas especificadas en la Ley de Régimen

Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezartzen den modu eta terminoetan.

ZAZPIGARRENA. Epea.
Oinarri hauen bidez arautzen diren laguntzak eskuratzeko epea deialdi hau ALHAOn argitaratu eta ondorengo egunean hasiko da. Eskabideak aurkezteko azkeneko eguna, 2016ko urriaren 28a izango da.

Aurkezten den informazioan zerbait falta denaz edo ohartuz gero, eskatzaileak, jakinarazten zaionetik hamar eguneko epea izango du hutsa konpontzeko.

Epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidea artxibatu egingo da besterik gabe eta eskaera bertan behera geratuko da.

ZORTZIGARRENA. Eskaeren azterketa eta ebazpena.

Heldutako eskaera guztiak Euskara Arloan aztertuko dira aldi berean.

Euskara Arloko teknikariak ziurtagiri bat jaulkiko du egindako errotulazio bakoitzeko, eskatutakoak bete direla bermatzeko.

Behin guztiak aztertuta, Euskara Arloko teknikariak txosten bat idatziko du, heldutako eskaerak edo burututako errotulazioak eta euren balorazioak jasoz.

Balorazio horiek Balorazio Epaimahai batera igorriko dira, azter ditzaten. Udalbatzako Kultura, Kirolak eta Euskara arloetako gaien Informazio Batzordeko kideek eta Euskara Arloko teknikariak osatuko dute Epaimahaia, eta azken horrek idazkari lanak egingo ditu.

Espedientea kontuan hartuz eta Balorazio

Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

SÉPTIMA. Plazo.
El plazo de presentación de solicitudes comenzará a partir del día siguiente a la publicación de esta convocatoria en el BOTHA y finalizará el 28 de octubre de 2016.

Si hubiese sido detectada alguna irregularidad o deficiencia en la documentación presentada se dispondrá de un plazo de diez días para subsanarlo a partir de su comunicación.

Si agotado dicho plazo dicha solicitud no ha sido corregida, pasará a ser archivada y quedará sin valor administrativo.

OCTAVA. Estudio y resolución de las solicitudes.

Todas las solicitudes recibidas serán estudiadas de manera simultánea en el Área de Euskara.

El técnico del Área de Euskera expedirá un certificado por cada trabajo de rotulación, garantizando el cumplimiento de los requisitos.

Una vez analizadas todas, el técnico del Área de Euskera elaborará un documento relativo a las solicitudes o realizaciones de rotulaciones, con las valoraciones correspondientes.

Dichas valoraciones serán remitidas para su estudio al Tribunal de Valoración compuesto por los miembros de la Comisión Informativa de asuntos de pleno de Cultura, Deportes y Euskara y, a modo de secretario, el técnico del Área de Euskera.

A la vista del expediente y del informe del Órgano

Laudio Llodio

EUSKARA ARLOA
Tlf.: 94 403 4890 / Fax.: 94 403 4753

ÁREA DE EUSKERA
euskara@laudio.eus

Herriko Plaza
01400 Laudio / Llodio (Araba / Álava)
www.laudio.eus

| | |
|---|---|
| Organoaren txostenean jasotakoa batuz, Euskara Arloko Zinegotzi Ordezkariak behin betiko proposamena egingo du. Proposamen horretan hauxe zehaztu beharko da: | de Valoración, la Concejala Delegada del Área de Euskera formulará a la Junta de Gobierno Local la propuesta de resolución, la cual deberá contener: |
| - Diru-laguntza lortu ahal izateko zenbatek egin duten eskaera. | - La relación de solicitantes para los que se propone la concesión de la subvención. |
| - Diru-laguntzaren zenbateko zehatza eta zertan oinarriturik ematen den. | - La cuantía específica de la subvención y en base a qué se da. |
| - Diru-laguntza emateko zein arrazoi izan diren eta jarraitu diren irizpideak. | - Especificación de la evaluación y los criterios seguidos para efectuarla. |
| Euskara Arloak, hala baderitzo, aurkeztutako dokumentazioari buruzko datuak edo argibideak eska ditzake. Eskatutako hori Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidean 30/90 zenbakiko legeak ezarritako epeetan aurkezten ez bada, espedientea atzera daiteke edo, areago, artxibapena eragin dezake, eskaera bertan behera utziz. | En aquellos casos en que se estime oportuno, el Área de Euskara podrá solicitar datos y pedir aclaraciones sobre la documentación presentada. De no ser presentados en los plazos establecidos en la Ley 30/90 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común podrían retrasar el expediente o incluso dar lugar a su archivo definitivo. |
| Ebazpena Diru-laguntza ematearen aldeko izatekotan, honen jakinarazpenaren barnean aipatuko dira kopurua, ordaintzeko modua eta esleipenaren baldintzak. | En el caso de que el acuerdo sea favorable a la concesión de la subvención, en la resolución constarán la cuantía, forma de pago y condiciones de la ayuda. |
| Eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik hiru hilabete igaro ondoren jakinarazpenik hartzen ez bada ulertu beharko da ezezkoa eman zaiola. | Si transcurridos tres meses desde la finalización de presentación de solicitudes no consta resolución expresa a la misma se entenderá como denegada. |
| BEDERATZIGARRENA. Jakinarazpena eta ordaintzeko era. | NOVENA. Notificación y forma de pago. |
| Behin Tokiko Gobernu Batzarrak onartu behin betiko ebazpena, eskatzaile guztiei helaraziko zaie. Erabakia arrazoitu egingo da, eta, bestela ere, erabakia hartzeko jarraitu diren irizpideak zehaztu beharko dira. | Aprobada la resolución definitiva por la Junta de Gobierno, se remitirá a todos los solicitantes. La resolución se motivará y, en todo caso, deberán quedar acreditados los fundamentos de la resolución que se adopte. |

Diru-laguntza jasoko duten eskaera egilearen edo egileen izenak agertu beharko dira. Laguntza ukatzen zaien eskaeren zerrenda ere agertu beharko da, beti ere, erabaki horiek behar bezala arrazoituz.

Deberá contener el solicitante o la relación de solicitantes a los que concede la subvención y la desestimación del resto de las solicitudes, aportando siempre el razonamiento de tales decisiones.

Era berean, diru-laguntzaren kopurua, ordaintzeko modua eta laguntzaren baldintzak; bestetik aurkeztutako justifikazioaren onarpena.

Asimismo se harán constar la cuantía de la ayuda, forma de pago y condiciones en que se otorga así como la aprobación de la justificación presentada.

Diru-laguntza hauek ordaintzeko modua laguntzaren ehuneko 100 ordaintzea izango da, behin aurkeztutako kitapena onartuta. Berau, deialdi honetako hamargarren oinarrian jaso bezala egin beharko da.

La forma de pago de estas subvenciones será el abono del 100 por cien del importe total tras la aprobación de la justificación de la subvención, realizada tal y como se recoge en la base décima de esta convocatoria.

Erabakia hartu eta jakinarazpenerako gehienezko epea hilabetekoa da. Deialdia egiten den unetik hasiko da epea, deialdiak berak epearen jakinarazpena atzeratzea zehazten ez badu.

El plazo máximo de resolución y notificación es de un mes. El plazo se computará desde la publicación de la correspondiente convocatoria, a no ser que ésta posponga sus efectos a una fecha posterior.

HAMARGARRENA. Justifikazioa.
Arrazoizko kontu ematea onuradunaren betebeharra da. Bertan, adierazpena egiten duen erantzukizunpean, diru laguntza ematea arrazoitzen duten gastuen agiriak aurkeztu beharko dira.

DÉCIMA. Justificación.
La rendición de la cuenta justificativa constituye un acto obligatorio del beneficiario, en la que se deben incluir, bajo su responsabilidad del declarante, los justificantes de gasto que permitan acreditar el cumplimiento del objeto de la subvención.

Gainera, Laudio Udalak emandako diru-laguntzaz gainera, jarduerak beste erakunde batek emandako laguntzarekin edo bestelako diru sarrerekin egin direnean, zenbatekoa zehazten duen agiria aurkeztu beharko da. Dirua nondik datorren eta egindako jardueratan zertarako erabili den zehaztu beharko da.

Además, cuando la actividad objeto de la subvención haya sido financiada además de con la subvención del Ayuntamiento de Llodio, con fondos propios u otras subvenciones o recursos, deberá acreditarse en la justificación el importe, procedencia y aplicación de tales fondos a las actividades subvencionadas.

1.- Diru-laguntza arrazoitzeko, onuradunak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

Para justificar la subvención el beneficiario deberá presentar la siguiente documentación:

1.1.- Egindako errotulazio-lanaren memoria.

1.1.- Memoria del trabajo de rotulación realizada.

1.2.- Jatorrizko fakturak edota euren fotokopia konpultsatuak gastuaren zati bat bestelako baliabidez edo diru-laguntzaz finantzatu izan bada. Bestela, merkantzien trafiko juridikoan edo administrazio eraginkortasuna onartuak dituzten bestelako agiriak ere aurkeztu ahal izango dira.

1.2.- Facturas originales o fotocopias compulsadas, si el gasto ha sido parcialmente financiado por otro recurso o subvención, de las facturas justificativas del gasto o documentos de valor probatorio equivalente con validez en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa.

1.3.- Aurkeztutako fakturak ordaindu izanaren egiaztagiriak.

1.3.- Justificantes del pago de las facturas aportadas.

1.4.- Diru-laguntza emandakoan zehaztu zen helburua bete dela egiaztatzen duen adierazpena.

1.4.- Declaración acreditativa de que se ha cumplido la finalidad para la que se concedió la subvención.

1.5.- Onuradunak zergak eta Gizarte Segurantzarekin dituen ordainketak eginak dituela frogatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira. Eskaera egin zuenean aurkeztutako agirien iraungitze data ez bada gainditu, ez da aurkeztu beharrik izango.

1.5.- Certificados acreditativos de que el beneficiario se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social, siempre que no hubiesen caducado los que presentó en el momento de solicitar la subvención.

1.6.- Lagundutako elementuaren argazkia.

1.6.- Fotografía del elemento rotulado.

1.7.- Gastuen eta diru sarreren likidazioan agertzen diren diru laguntzak jasotako bakarrak direla egiaztatzen duen zinpeko adierazpena. Era berean, egindako beste laguntza eskaerak atzera bota dituztela esan behar da zinpeko adierazpenean.

1.7.- Declaración jurada de que las ayudas que figuran en la liquidación de ingresos y gastos han sido las únicas percibidas y como otras solicitadas y que figuraban en la solicitud de petición de subvención han sido denegadas.

1.8.- Euskara Arloko teknikariak jaulkitako ziurtagiri bat egindako lanaren zuzentasun linguistikoa, izen generikoen eta ez berezien erabilera eta deialdi honetako bosgarren oinarrian jasotakoa bermatuz.

1.8.- Certificado expedido por el técnico del Área de Euskera garantizando la corrección lingüística, el uso de genéricos y no nombres propios y otros aspectos similares recogidos en la base quinta de esta convocatoria.

Diru-laguntza justifikatzeko dokumentu hauek, behin errotulazio-lana bukatuta, ahalik eta azkarren aurkeztu beharko dira, horiek izan arte ez delako bideratuko laguntzaren ordainketa. Nolanahi ere, aurkezteko baliagarri izango den azken eguna azaroaren 13a izango da.

La documentación justificativa deberá presentarse a la mayor brevedad posible una vez finalizado el trabajo de rotulación ya que sólo a la vista de la misma será abonada la subvención correspondiente. En cualquier caso, el último día para su presentación será el 13 de noviembre.

Egin beharretako bat edo gehiago bete ezean, emandako diru laguntza bertan behera gera daiteke.

El no cumplimiento de alguna o varias de estas exigencias podrá anular la subvención concedida.

2.- Balorazio Organoak erabaki dezake 2016ko urriaren 28a baino lehen Diru Laguntzen Legeko 30. artikuluko 2. apartatuan erabakitakoaren indarrez, emandako 60.000 euro baino gutxiagoko diru laguntzen onuradunek, aurreko apartatuetan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharrean, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuz onartutako Diru Laguntzen Lege Orokorraren Erregelamendu Orokorreko 75. artikuluan erregulatutako justifikazio kontua aurkeztu beharko dute.

2.- El Órgano de Valoración podrá acordar, antes del 28 de octubre de 2016, y a los efectos de lo dispuesto en el apartado 2 del art. 30 de la Ley de Subvenciones concedidas por importe inferior a 60.000 euros, que los beneficiarios, en lugar de presentar la documentación señalada en el apartado 1.3, deban presentar la cuenta justificativa simplificada regulada en el art. 75 del Reglamento General de Subvenciones de la Ley General de Subvenciones, aprobado por el Real Decreto 887/2006 de 21 de julio.

HAMAIKAGARRENA. Onuradunaren betebeharrak.

UNDÉCIMA. Obligaciones a cumplir por los perceptores.

Diru-laguntza honen onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

Los beneficiarios de estas ayudas deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Diru-laguntza ematearen funtsa den errotulazioa benetan gauzatzea.

a) Realizar la rotulación que fundamenta la concesión de la ayuda.

b) Onartzea emandako diru-laguntzaren gaineko Udalak eska lezakeen edozein egiaztapen-froga.

b) Aceptar las posibles medidas de comprobación sobre la ayuda concedida solicitadas por el Ayuntamiento.

c) Laguntza justifikatzeko dokumentazioa aurkeztea, deialdi honetako hamargarren arauan eskatu bezala.

c) Presentar la documentación justificativa requerida en la base décima de esta convocatoria.

HAMABIGARRENA. Esleitutako diru-laguntzaren galera.

DECIMOSEGUNDA. Pérdida de la subvención concedida.

Diru-laguntza jasoko duten onuradunek beherago zehazten diren baldintzetako bat beteko ez balute, diru-laguntza proposatu zuen Balorazio Organoak berak diru-laguntza eta horren interesak itzultzeko eskaera proposatu dezake. Horretarako Organo berak proposatuko dio Alkatearen bitartez Tokiko

En el supuesto de que los beneficiarios de las subvenciones incumplieran cualquiera de las condiciones que más abajo se detallan, el propio Órgano de Valoración que propuso la subvención, propondrá a través del Alcalde a la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento, para su

| | |
|---|---|
| Gobernu Batzarrari, bete ez diren baldintzen larritasunaren arabera, erabakitzea diru-laguntza itzuli behar den edo ez, eta, onuradunen batek egin beharko balu, transferentzia bitartez egin beharko luke Laudioko Udalaren kontu korrontean. | aprobación y, en función de la gravedad de los incumplimientos, la obligación de reintegrar las cantidades percibidas, más el interés de demora desde el momento del pago de la subvención, mediante transferencia a la cuenta del Ayuntamiento de Llodio. |
| Hauexek izango dira hori eragingo duten balizkoak kasuak: | Los supuestos que obrarán en este sentido son: |
| - Eskaera egitean edo eskatutako dokumentazioan gezurrezko datuak ematea. | - El falseamiento de datos formulados en la solicitud o en la documentación aportada. |
| - Diru-laguntza ematea arrazoitzen zuen helburua bere osotasunean edo atalka ez betetzea. | - El incumplimiento total o parcial del objetivo de la actividad que fundamentó la concesión de la subvención. |
| - Laguntza justifikatzeko eskakizuna ez betetzea edo erdizkako justifikazioa egitea. | - El incumplimiento de la obligación de justificación o la justificación insuficiente. |
| - Diru-laguntzaren kopuruak, berak bakarrik edo beste laguntza publiko edo pribatuekin bat eginez, egindako lanaren gastua gainditzea. | - Que el importe de la subvención, aisladamente o en concurrencia con otras ayudas públicas o privadas, supere el coste del trabajo subvencionado. |
| - Ahalik eta azkarren Laudio Udalari beste diru-laguntza publiko edo pribaturen bat jaso izanaren berri ez ematea. Gainerako laguntzen berri eman beharko da baita Laudio Udalak likidazioa onartua duenean ere. | - La no comunicación a la mayor brevedad posible al Ayuntamiento de Llodio de la concesión de otras subvenciones públicas o privadas, aunque ya se haya aprobado por el Ayuntamiento de Llodio la liquidación oportuna. |
| - Eta, oro har, oinarri hauetan zehaztutako eginbeharren bat ez betetzea. Onuradunen betebeharrak edo likidazioetan bete beharreko dokumentazioari dagozkienak ere izan daitezke. | - Y, en general, el incumplimiento de cualquiera de las obligaciones que se fijan en las presentes bases tanto para los beneficiarios como para la documentación a presentar en las liquidaciones. |
| HAMAHIRUGARRENA. Diru-laguntzen zati baten itzulera edo eginbeharrak ez betetzea graduatzeko irizpideak. | DECIMOTERCERA. Reintegro parcial de las subvenciones y criterios de graduación de incumplimientos. |
| Jardueraren behin betiko likidazioa aurrekontuan zehaztutako gastuak baino txikiagoa denean eta onuradunak aldez aurretiko berraztertzea | El Órgano de Valoración propondrá el reintegro parcial de las subvenciones cuando la liquidación definitiva de gastos de la actividad haya sido |

eskatzen ez duenean, Balorazio Organoak diru-laguntzen zati baten itzulera proposatu dezake. Itzuli behar dena kalkulatzeko, aurkeztutako likidazioari egokitasun irizpideak ezarriko dizkio Balorazio Organoak.

menor al presupuesto inicial de gastos de la actividad y el beneficiario no haya pedido su revisión anterior. Para calcular el reintegro, el Órgano de Valoración aplicará a la liquidación presentada el criterio de proporcionalidad.

Aurreko oinarrian zehaztutako eginbeharren bat ez betetzeagatik Balorazio Organoak diru-laguntzaren zati bat itzultzea proposatuko balu, bete ez den eginbehar bakoitzeko emandako diru-laguntzaren ehuneko 5 itzultzea proposatuko luke.

En el supuesto de que el Órgano de Valoración propusiera el reintegro parcial de las subvenciones por incumplimiento de otras condiciones detalladas en la cláusula anterior, aquel aplicará el criterio de minorar la subvención en un 5 por ciento del importe total de la misma por cada condición no cumplida

HAMALAUGARRENA. Zigorrak.
Eginbeharrak ez betetzearen larritasunak baloratu ondoren eta dagokion espedientea zabaldu ondoren, Balorazio Organoak zigorra –diruz egin beharrekoa edo ez– proposatu ahal dio Alkateari eta Udaleko Gobernu Batzordeari Euskara Arloko zinegotzi ordezkariaren bitartez. Azaroaren 17ko 30/2003 Legeko IV. Tituluko II. kapituluan zehazten dira egon daitezkeen zigorrak, eta diru-laguntza itzultzearekin ez dute zerikusi zuzenik. Dena dela, zigorra ezartzen den guztietan suposatuko da onartutako diru-laguntza itzuli beharko da beti.
Diru-laguntzetarako legeak edo bere ordenantza arautzailean aurreikusi barik baina oinarri hauetan eskatzen diren betebehar batzuk ez betetzekotan, beteko ez den eskakizun bakoitzeko ehuneko 5eko jaitsiera aplikatuko zaio laguntzari.

DECIMOCUARTA. Sanciones.
El Órgano de Valoración, previa apertura del oportuno expediente, tras la oportuna valoración de la gravedad de los incumplimientos, propondrá a la Junta de Gobierno Local, a través de la Concejala Delegada del Área de Euskera, las sanciones tanto pecuniarias como no pecuniarias recogidas en Título IV, Capítulo II de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre y que son independientes de la obligación de reintegro de las subvenciones. En todo caso, la imposición de una sanción irá acompañada siempre del reintegro total de la subvención.
En caso de incumplimiento de requisitos exigidos por estas bases pero no regulados por la ley de subvenciones o su ordenanza reguladora se reducirá un 5 por ciento la subvención concedida por cada requisito incumplido.

Jasotako diru kopurua itzultzeaz gainera, atzerapenak eragindako interesak ere ordaindu beharko dituzte establezimendu onuradunen administratzaileek edo ordezkari legalek.

Serán responsables subsidiarios de la obligación de reintegrar las cantidades percibidas, más el interés de demora, los administradores o representantes legales de los establecimientos beneficiarios

HAMABOSGARRENA. Argitzeak.
Oinarri hauek ulertzeko moduan zalantzarik balego, Laudioko Udaleko Tokiko Gobernu

DECIMOQUINTA. Interpretación.
Cualquier posible duda de interpretación de estas bases será resuelta por la Junta Local de

Batzarrak erabakiko du.

HAMASEIGARRENA. Hedapena.
Deialdi hau, ALHAOn argitaratzearekin batera, Udaletxeko iragarki taulan eta udalaren webgunean (www.laudiokoudala.net) argitaratuko da.

HAMAZAZPIGARRENA. Errekurtsoak.
Deialdi honen kontra eta deialdi honetatik sortzen diren administrazio ondorioen aurkako murtziloak aurkeztu ahal izango dira Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak ezartzen dituen modu eta kasuetan.

HAMAZORTZIGARRENA. Azken xedapena.

Izaera orokorrekoa den deialdi honetan aurreikusi bariko guztian aplikaziokoa izango da Laudio udaleko Diru-laguntzen udal Ordenantza Arautzailean (ALHAO: 2009-12-12) eta azaroaren 17 Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrean eta bere garapenerako Erregelamenduan xedatutako guztia.

ALHAOn osorik argitaratzen direnean eta Udal Araudien Legearen (7/1985 Legea) 65.2 artikuluan agertzen den epea igarotakoan, izango dira indarrean oinarri hauek.

Gobierno de este Ayuntamiento.

DECIMOSEXTA. Difusión.
Esta convocatoria será publicada, además de en el BOTHA, en el tablón de anuncios, y la página web (www.laudiokoudala.net) de este Ayuntamiento.

DECIMOSÉPTIMA. Recursos.
La presente convocatoria y los actos administrativos que se deriven de ella podrán ser impugnados en los casos y forma establecidos por la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

DECIMOCTAVA. Cláusula final.

En todo lo no previsto en esta convocatoria, de carácter general, será de aplicación lo dispuesto en la Ordenanza Municipal Reguladora de Subvenciones del Ayuntamiento de Llodio (BOTHA: 12-12-2009) y en la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su Reglamento de desarrollo.

Las presentes bases entrarán en vigor una vez publicado íntegramente su texto en el BOTHA y transcurrido el plazo establecido en el artículo 65.2 de la Ley 7/1985, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

Laudio Llodio

EUSKARA ARLOA
Tlf.: 94 403 4890 / Fax.: 94 403 4753

ÁREA DE EUSKERA
euskara@laudio.eus

Herriko Plaza
01400 Laudio / Llodio (Araba / Álava)
www.laudio.eus

## ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS SOLICITANTE

*PERTSONA JURIDIKOA (SALTOKIA) / Persona jurídica (establecimiento)*

ESKATZAILEA / Solicitante: ______________________________

IFK / CIF: ________________ POSTA ELEKTR.: ______________________________

HELBIDEA / Dirección: ______________________________HERRIA / Población: LAUDIO

**ORDEZKATZEN DUEN PERTSONA FISIKOA / Persona física que lo representa**

IZENA / Nombre: ______________________ NAN / DNI: __________ TFNOA.: ____________

**KONTU ZENBAKIA / Cuenta bancaria**

KONTUAREN JABEA / Titular de la cuenta: ______________________________

| IBAN | | | | ERAKUNDE *Entidad* | | | | BULEGOA *Oficina* | | | | KONTR D: *Dígito Control* | | KONTU-ZENBAKIA *Número de cuenta* | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |

*ERROTULO MOTA /Tipo de rotulación*

☐ Errotulu nagusia / *rótulo principal* ☐ Toldoa / *toldo* ☐ Ibilgailua / *vehículo*

## AURKEZTEKO AGIRIAK / DOCUMENTOS A PRESENTAR

☐ Eskatzailea pertsona juridikoa denean (saltokia, enpresa...) IFKren fotokopia / *Fotocopia del CIF cuando la solicitante es una persona jurídica (establecimiento, empresa...)*

☐ Eskatzailea pertsona juridikoa denean (saltokia, enpresa...) ordezkatzen duen pertsonaren NANaren fotokopia eta ordezkatze hori baimentzen duen agiri bat (erabakia, eskriturak...) / *Cuando la solicitante es una persona jurídica (establecimiento, empresa...) fotocopia del DNI de representante y documento que acredite esa representación (acuerdo adoptado, escrituras...)*

☐ Errotulazio lanaren diseinu proba eta aurrekontua oniritzia emateko eta eginda dagoenean faktura eta ordainduta egotearen agiria / *Prueba del diseño y presupuesto del rótulo para dar el consentimiento. Si estuviese finalizado, factura y documento del pago de la misma.*

☐ Zinpeko aitorpen bat adierazteko eskatzailea ez dagoela laguntzak eskuratzeko legez ezindua / *Declaración jurada de no encontrarse incurso en prohibición alguna para obtención de subvenciones.*

☐ Zinpeko aitorpen bat adierazteko errotulazio lan berbera egiteko eskatutako beste diru laguntza batzuk eta, hala balegokio, eskuratutako laguntzaren zenbatekoa. / *Declaración jurada dando cuenta de otras diferentes subvenciones solicitadas para realizar el trabajo de rotulación y su importe si así correspondiese.*

☐ Arabako Foru Aldundian eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalean zorrik ez izatearen egiaztagiriak (udalaren esku utz daiteke zeregin hau) / *Certificado de encontrarse al corriente en tributos con Diputación Foral de Álava e Instituto Nacional de la Seguridad Social (este trámite puede delegarse en el Ayto.).*

| 2016<br>**Urtea** / Año | **Hilabetea** / Mes | **Eguna** / Día |
|---|---|---|
| **DATA** | | |

| |
|---|
| **IZENPEA** / Firma |

Laudio Llodio

EUSKARA ARLOA
Tlf.: 94 403 4890 / Fax.: 94 403 4753

ÁREA DE EUSKERA
euskara@laudio.eus

Herriko Plaza
01400 Laudio / Llodio (Araba / Álava)
www.laudio.eus

**ESKATZAILEA** / SOLICITANTE: ______________________________________________

## ZINPEKO AITORPENA DECLARACIÓN JURADA

INFORMAZIOA FALTSUTZEAK BEKAREN GALERA DAKAR / La falsificación de esta información conlleva la pérdida de la beca

ZINPEKO AITORPEN HONEN BITARTEZ ETA NIRE ARDURAPEAN EGIAZTATZEN DUT BURUTUTAKO ERROTULAZIO LANA EGITEKO / Con esta declaración jurada y bajo mi responsabilidad declaro que para la realización del trabajo de rotulación

(☑ batez adierazi aukera zuzena / Marcar con una ☑ la opción correcta)

☐ LAUDIO UDALARI EGINDAKOAZ GAIN, EZ DUT BESTE DIRU-LAGUNTZARIK ESKATU. Además de la solicitada al Ayuntamiento de Laudio no he tramitado ninguna otra solicitud de ayuda a ente público ni privado.

☐ LAUDIO UDALARI EGINDAKOAZ GAIN, ONDOAN ZEHAZTEN DIREN ERAKUNDE PUBLIKO EDO PRIBATUEI ESKATU DIEDALA LAGUNTZA ETA, HALA BALEGOKIO, ONARTUTAKO LAGUNTZAREN ZENBATEKOA: Además de la solicitada al Ayuntamiento de Laudio he tramitado las siguientes solicitudes de ayuda a las entidades públicas o privadas indicadas, con el importe concedido si así procediese:

| **ERAKUNDEA** Entidad | **ONARTUTAKO LAGUNTZA** Ayuda concedida |
|---|---|
| | |
| | |

**Izenpea** / Firma

## ZINPEKO AITORPENA DECLARACIÓN JURADA

ZINPEKO AITORPEN HONEN BITARTEZ ETA NIRE ARDURAPEAN EGIAZTATZEN DUT EZ NAGOELA DIRU-LAGUNTZA PUBLIKOAK ESKURATZEKO LEGEZ EZINDUTA (Diru-laguntzetarako 38/02 Lege Orokorraren 13 artikuluaren 2 eta 3 atalak)

Con esta declaración jurada y bajo mi responsabilidad declaro que no estoy incurso en ninguna de las imposibilidades para ser beneficiario de una subvención pública (Apartados 2 y 3 del art. 13 de la Ley 38/03, Ge

**Izenpea** / Firma

## BAIMENA AUTORIZACIÓN

HONEN BITARTEZ **BAIMENA EMATEN DIOT** LAUDIO UDALARI NIRE IZENEAN EGIN DITZAN BEHARREZKO ARGIBIDE-ESKAERAK **ARABAKO FORU ALDUNDIA**N ETA **GIZARTE-SEGURANTZAKO INSTITUTU NAZIONAL**EAN.

Por el presente AUTORIZO al Ayuntamiento de Laudio / Llodio para que realice en mi nombre las oportunas consultas en la DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA y en el INSTITUTO NACIONAL DE LA SEGURIDAD SOCIA

**Izenpea** / Firma

Agiri honetako datu pertsonalak zin-egilearen onespenaz jaso dira, tratamendu automatizatua izango dute eta Laudio Udaleko Euskara Arloaren beharretarako erabiliko da soil-soilik. Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitako eskubideak erabiltzeko jo Euskara Arlora: Laudioko Udaletxea. Herriko plaza, z/g 01400 LAUDIO

Los datos recogidos en este documento han sido recabados con el consentimiento del declarante, tendrán un tratamiento automatizado y se usarán exclusivamente en el Área de Euskera del Ayuntamiento de Laudio / Llodio. Para valerse de los derechos recogidos en la Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos de Carácter Personal, ponerse en contacto con el Área de Euskara: Ayuntamiento. Herriko plaza, z/g 01400 LAUDIO / LLODIO